

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Txingurrifilia

HAZIAK SAKABANATZEKO luzokermiaren (*Ecbalium elaterium*) tankerako taktika darabilte barrabas jendeak (*Oxalis sp.*) eta elorri-triskak (*Genista scorpius*). Ez haren ezta daren zakarkeriarekin, baina bai fruitua bat-batean zabalduz.

Beste batzuk zuhurrago, isilago, isil-misilka antolatu dute beren hazien hedakuntza, putz eta puzkerren behar handirik gabe. Landare mirmekofiloek, adibidez; txingurriak maite dituzten landareak, alegia. Asko dira ugaltzeko txingurriekin tratua egina dutenak, mirmekofiloen artean mirmekokoroak. Eboluzioan landare eta intsektu espezieek topo egin dute eta iraupenerako elkarren aurka baino elkarrekin aritzea hobe dutela jabetu eta auzolanen aritzen dira, auzolan horren hartu eta emana etengabe hobetuz. Landareak txingurriak aprobetxatuko duen jaki-erreserba bat eransten dio haziari –olio gozoak gehienetan–, haziak lurrera hurbilduko ditu, garraiorako tamaina eta forma egokiz jantziko ditu, eta abar. Txingurriak



haziak amarengandik urrutiratuko ditu, harekin ez lehiatzeko eta haren bizkar bizi diren gaitz eta izurriteetatik urrun; bukatzeko, haziak lurperatu egiten dituzte, erein. Hazi txingurritegira eramango dute eta bertan metatu, behar ahala axalean daraman jakia kendu eta hor barrena, inguruko lur aproposen batean lagatzeko. Axalean, azalean daramatzen olioak kentzerakotan, ordea, azal hori otxabutuko diote eta horrek hazi ernatzea azkartzen du. Zein baino zein hobeto, txingurria elikatuta eta hazi egoki ereinda.

Gisa honetako landare mirmekokoroak Australian mila eta bostehunen bueltan, Afrikan beste mila inguru eta horietatik kanpo hirurehun bat ezagutzen dira. Brasilen, esaterako, hazi hauekin sortutako muintegiak –baratzatxoak deitzen diete– txingurritegitik urrutira gabe izaten direla jabetu dira. Azkarran izanik, jakiak dituen haziak emango dituen landare berria atarian nahi du txingurriak.

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba, galdera hauek egin nahi nizkizuke: Tolosaldean ondo ematen al du borraja landareak? Noiz aldatzen da? Zein baldintza behar ditu? Eta bestetik, mimosa etxe ondoan ez aldatzeko entzun izandu dut. Sustraiak oso luze eta sendoak al ditu ba? Aldez aurretik mila esker. Regina Tolosa (Amezketeta).

Kaixo Regina. Borrajak oso ondo emango dizu. Klima arazorik ez du izango eta zenbat eta lur hobean jarri landare ederragoa haziko da. Udaberri hasieran erein

edo aldatu. Ez du aparteko behar berezirik. Borrajak badu, ordea, ugaltzeko ikaragarriko erraztasuna. Landareren bat loratzen uzten baduzu inguruak ederki kolonizatuko ditu. Hori, badakizu, ona bezain txarra izan daiteke...

Mimosa, berriz, urzale amorratua da eta hodieta sar daiteke. Gaur egungo hodi, horma eta abarrekin, ordea, ez dut uste azarorik sortuko lizukeenik. Badaezpada, baina...



Gipuzkoako baserritarren denda
Landare eta lore haziak, erremintak, plastikoa, botikak...

Babeslea: Gurdi Kooperatiba Elkartea

☎ 943 655 880
🕒 9:00 - 13:30
🕒 15:30 - 19:30
Larunbat goizez irekita


